

IBARRAKO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOA
INVENTARIO DE LA RED MUNICIPAL DE CAMINOS PUBLICOS DE
IBARRA

BEHIN BETIKO ONESPENA / APROBACION DEFINITIVA

SUSTATZAILEA - AYUNTAMIENTO DE IBARRAko UDALA - PROMOTOR

EGILEA - CONCHI URIARTE SEMINARIO – AUTORA

JULIO 2.016ko UZTAILA

IBARRAKO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOA
INVENTARIO DE LA RED MUNICIPAL DE CAMINOS PUBLICOS DE
IBARRA

BEHIN BETIKO ONESPENA / APROBACION DEFINITIVA

MEMORIA

SUSTATZAILEA - AYUNTAMIENTO DE IBARRAko UDALA - PROMOTOR

EGILEA - CONCHI URIARTE SEMINARIO – AUTORA

JULIO 2.016ko UZTAILA

AURKIBIDEA / INDICE

I. MEMORIA / MEMORIA

1. SARRERA / INTRODUCCION	1
2. METODOLOGIA /METODOLOGÍA	1
- Landa lana /Trabajo de campo	1
- Dokumentazio bilketa / Recopilación documentación	1
- Erregistro bilketa / Investigación registral	2
- Datuak egiaztatzea eta dokumentua egitea	2
Contrastación de datos y redacción del documento	
- Erakusketa publikoa / Exposición pública	2
3. IRIZPIDEAK / CRITERIOS	2
4. SAILKAPENA ETA ALDAKETAK / CLASIFICACIÓN Y MODIFICACIONES	3
4.a. Sailkapena / Clasificación	3
4.b. Aldaketak / Modificaciones	4
5. INBENTARIOAREN ONDORIO NAGUSIAK	5
CONCLUSIONES GENERALES DEL INVENTARIO	

ERANSKINAK / ANEJOS

1. Alegazio epea – Laburpena / Periodo de alegaciones - Resumen
2. Bideen laburpena zorua eta egoeraren arabera / Resumen de los caminos en función de su firme y estado.
3. Egoera juridikoa / Situación jurídica
4. Iristizabal baserriaren plano (1960)
5. “Proyecto de camino vecinal de primer orden desde Tolosa a Leaburu” (1.920)
Erref/Ref – JD T 388,2

II. FITXAK / FICHAS

III. PLANOAK / PLANOS

1. PLANO OROKORRA / GENERAL (E: 1/5.000)
2. KATASTRO + ORTOFOTOA / CATASTRO + ORTOFOTO (E: 1/5.000)

1. SARRERA

Ibarrako Udalak 2005. urtean egin zuen bideen inbentarioa, non 36 herri-bide jaso ziren, 22 Izaskun auzoan edo udalerriko iparraldean kokatuak zeuden eta 14, hegoaldean. Bide hauek plano batean azaltzen ziren baina ez zegoen haren izaera publikoa justifikatu eta argudiatzen duen informaziorik.

Egoera honen aurre egiteko, inbentarioren berrikustea proposatzen da behar den informazioa biltzen dena bide horien publikotasuna berretsi ahal izateko eta informazio horren bidez inbentarioan sartua ez dagoen beste bideren bat ere jaso ahal izateko edo kentzeko.

Behin lehenengo fasea bukatuta, non helburua izan da datuak biltzea, datu horiek egiaztatzea eta dokumentua prestatzea, Ibarrako udalbatzak, maiatzaren 12an eginiko osoko bilkuran erabaki zuen Herri bideen inbentarioari hasierako onespena ematea.

2016ko maiatzaren 19an, GAOin inbentarioa jende aurrean zegoela argitaratu zen, nahi zuenak alegazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera izan zezan.

2. METODOLOGIA

- LANDA LANA

+ Landa eremuko biztanleekin eta intereseko datuak ezagutzen dituzten pertsona guztiekin elkarrizketak egin haien testigantzak jaso ahal izateko.

+ Bideen egiazko egoera egiaztatu (zorua, zabalera, egoera eta abar).

- DOKUMENTAZIO BILKETA

+ Udalaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa

+ Kartografia, Katastroa, Ortoargazkiak.

1. INTRODUCCION

El Ayuntamiento de Ibarra realizó, en el año 2.005, un inventario de caminos que incluía un total de 36 caminos públicos, 22 en el barrio de Izaskun o zona norte del municipio, y 14 en la parte sur. Estos caminos fueron dibujados en un plano, pero faltaba información que justificara la inclusión de los caminos en el inventario.

Ante esta situación plantea hacer una revisión del inventario que incluya la información necesaria que justifique la condición pública de los caminos recogidos, e incluso a través de dicha información se pueda incluir algún otro camino que no estuviera recogido en el inventario o eliminarlo

Realizada la primera fase del trabajo, que ha consistido en la recopilación de datos, la contrastación de los mismos y la elaboración del documento, el Ayuntamiento de Ibarra, en sesión celebrada el día 12 de mayo de 2.016, acuerda aprobar inicialmente el Inventario de Caminos Rurales Públicos.

Con fecha 19 de mayo de 2.016 se publica en el B.O.G el anuncio sobre su exposición pública para que se puedan presentar las reclamaciones y sugerencias oportunas

2. METODOLOGIA

- TRABAJO DE CAMPO

+ Entrevistas con los habitantes del suelo rural para recoger sus testimonios, y con cuantas personas conozcan datos de interés.

+ Comprobación del estado real de los caminos (firme, anchura, estado, etc.).

- RECOPIACION DOCUMENTACION

+ Inventario de bienes y derechos del ayuntamiento

+ Cartografía, Catastro, Ortofotos

+ Dokumentu eta plano pribatuak

+ Tolosako artxibo historikoa

+ Archivo histórico de Tolosa

- ERREGISTRO IKERKETA

Finken bilatze lan handia egin da Jabetza Erregistroan, hala baserriena nola ustezko bide horien mugako lurrena, ahalik eta finka kopuru handiena kontsultatuz.

- DATUAK EGIAZTATZEA ETA DOKUMENTUA EGITEA.

Informazio guztia bildu eta datuak egiaztatu ondoren, bideen inbentarioa aurkezten da. Dokumentuan plano bat dago eta bertan grafiatu dira proposaturiko bide guztiak; fitxa tekniko bat ere prestatu da inbentarioan jasotako bide bakoitzerako. Horretarako, bideen egungo kodeak mantendu dira eta baita haien izena ere, eta bide berriak baldin badaude beste zenbaki batzuk jarri zaizkie.

- ERAKUSKETA PUBLIKOA

Jende aurrean egon den bitartean, inbentarioa 17 lagunek kontsultatu dute, baina ez da inongo alegaziorik aurkeztu (1. Eranskina)

3. IRIZPIDEAK

Bide bat inbentarioan sartzeko ondorengo irizpenak jarraitu dira:

- Igarotzen den finka mugakideen eskrituretan eta agiri ofizialetan bidearen erreferentzia egotea.
- Inguruko biztanleak herri bide bezala onartzea.
- Bidea bizilagun gehientsuenak ibiltzea.
- Bidea artalan eta eraikitze-lanengatik diru laguntzak jaso izana.

+ Documentos y planos privados

- INVESTIGACION REGISTRAL

Se ha hecho una búsqueda importante de las fincas en el Registro de la Propiedad, tanto de los caseríos como de los terrenos colindantes con los supuestos caminos, consultando el mayor número posible de fincas.

- CONTRASTACION DE DATOS Y REDACCION DEL DOCUMENTO.

Una vez recogida toda la información y contrastados todos los datos, se presenta un inventario de caminos que incluye un plano, donde se han dibujado todos los caminos propuestos, y una ficha técnica para cada uno de los caminos inventariados. Para ello, se han mantenido los códigos actuales de los caminos así como el nombre de los mismos, aplicándose un nuevo número en el caso de nuevos caminos.

- EXPOSICION PUBLICA

Durante el periodo de exposición pública el inventario ha sido consultado por unas 17 personas, no habiéndose presentado ninguna alegación. (Anejo 1)

3. CRITERIOS

Los criterios empleados para incluir un camino dentro del inventario han sido los siguientes:

- Que aparezca alguna referencia del camino en las escrituras de propiedad de los terrenos colindantes por donde discurre y en documentos oficiales.
- Que los habitantes de la zona lo reconozca como público.
- Que el camino se utilice por la generalidad de los vecinos.
- Que los caminos hayan recibido ayudas en su conservación o construcción.

4. SAILKAPENA ETA ALDAKETAK

4.a. Sailkapena

Orain arte esandakoa kontuan harturik, bideak bi taldeetan sailkatu dira:

A – HERRI BIDEAK

Talde honetan jabari publikoko 30 bide jaso dira. Planoetan herri bideak berdez markatu dira eta zenbaki batekin. Atal honetan jaso diren bideen zerrenda hau da:

4. CLASIFICACION Y MODIFICACIONES

4.a. Clasificación

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto, los caminos se han clasificado en dos grupos:

A – CAMINOS PUBLICOS

En este grupo se han recogido un total de 30 caminos de dominio público. En los planos se han marcado en color verde y con un número. El listado de caminos recogidos en este grupo es el siguiente:

- 01. MAITA GOIKOA
- 05. UZTURRE
- 06. IZASKUN – BELABIETA BIDEA (27)
- 09. IZASKUN
- 16. GURIDI AUZOA – IZASKUN BIDEA (09)
- 17. AUTOBIDEA – IZASKUN
- 26. TXULONE
- 27. BELABIETA ZIRKUITUA
- 28. MAITA BEKOA
- 29. GOROTZUN
- 30. INTSALUS
- 31. URKIETA
- 32. ORIETAKO ERREKA
- 33. ELUTZUN
- 34. IZASKUN PROZESIOA
- 36. ELORBE
- 37. MALKORRANEA
- 38. ETXEBERRITXO
- 39. BELABIETA
- 60. PALAZIOETXE
- 61. IRAÑETA

- 21. IBARGAIN
- 24. HILERRIA
- 44. HILERRIRAKO BIDE ZAHARRA
- 46. MOLPOIDO
- 48. IRISTIZABAL
- 50. IBARRA – LEABURU
- 57. OTARRE – HILERRIA
- 70. OTARRE – LEABURU
- 71. LEABURURA ERREPIDE ZAHARRA

B – ERABILPEN PUBLIKOA DUTEN JABARI PRIBATUKO BIDEAK

Talde honetan 7 bide sartu dira, oso erabiliak diren arren jabari pribatukoak direnak. Planoetan laranja kolorearekin jaso dira eta letra batekin. Talde honen barruan, bide hauek jaso dira:

- EP-A. IZASKUN
- EP-B. GOROTZUN
- EP-C. HAIZE LEKU
- EP-D. ISTIZABAL
- EP-E. AGINAGALDE
- EP-F. MENDIZORROTZ
- EP-G. OTARRE

4.b. Aldaketak

Erakusketa publikoaren epearen barruan inongo alegaziorik jaso ez izan arren, emandako datu berriak kontuan hartuz, hurrengo aldaketak egin dira

- beste herri-bide bat sartu da, "Leaburura errepide zaharra" 71 zenbakiarekin jasota. Bide hau Tolosatik Leabururako GI-3212 errepidearen zati batekin bat dator.

- erabilpen publikoa duen jabari pribatuko beste bide bat sartu da, EP-G. Otarre, izenekoa.

- 06. bidearen zati bat Izaskungo ermitaren inguruan kendu egin da. Izan ere, bide honen zati bat GI-3430 errepidearen bukaerarekin bat baitzatorren.

- Otarre baserriaren inguruan 21 bidearen trazadura aldatu egin da.

B. CAMINOS PRIVADOS CON SERVIDUMBRE DE USO PUBLICO

Dentro de este grupo se han recogido un total de 7 caminos, que si bien son muy utilizados son de titularidad privada. En los planos se han dibujado en color naranja y señalados con una letra. Los caminos incluidos han sido los siguientes:

4.b Modificaciones

Aunque durante el periodo de exposición pública no se ha recogido ninguna alegación, atendiendo a nuevos datos facilitados, se han realizado las siguientes modificaciones:

- se ha incluido un nuevo camino público, recogido con el número 71, "Leaburura errepide zaharra", que se corresponde con parte del trazado de la carretera GI-3212 de Tolosa a Leaburu.

- se ha incluido un nuevo camino de uso público, denominado EP-G. Otarre.

- se ha eliminado una parte del camino 06 en las inmediaciones de la ermita de Izaskun, ya que se correspondía con el final de la carretera GI-3430

- se ha modificado el trazado del camino 21 en las inmediaciones del caserío Otarre.

5. INBENTARIOAREN ONDORIO OROKORRAK

Inbentarioan bi bide mota sartu dira, alde batetik, zalantzarik gabe eta antzina-antzinatik udalaren jabetzakoak diren bideak, Herri bide atalean jasoak, eta bestetik, udalak eraikitako bideak izan arren, bere titulartasun-alderdiak arautu gabe dituztenak, eta Erabilpen publikoa duten jabari pribatuko bideak izeneko atalean sartuak.

HERRI-BIDEAK

Talde honetan 30 bide inbentariatu dira, guztira 24 kilometrotako luzera izanik. Bideen ezaugarriak, kontuan harturik bideen zoruen eta egoeraren inbentariaturiko bideen laburpena arabera (2. Eranskina), honako hauek dira:

- Sarearen %37 (9 Km) egoera onean dauden zolatutako bideak dira. Gehienetan, zorua asfaltozkoa da eta gainontzekoetan, hormigoizkoa.
- %35ek (8,3 Km) zagorrezko zorua dute eta mendi-bideak dira.
- %18 (4,4 Km) egoera onean dauden lurrezko bideak dira, ibilbidea argia eta nabaria dute eta bertatik ibiltzeko modukoak dira.
- Gainontzeko %10a (2,3 Km) lurrezko zorua duten bideekin osatuta dago, eta hauetan ibilbidearen nondik norakoa asma daitekeen arren, batzuetan bertan dagoen landaretzak pasatzea eragozten du eta beste batzuetan desagertu egin dira zelai bihurtu direlako

ERABILPEN PUBLIKOA DUTEN JABARI PRIBATUKO BIDEAK

Talde honetan 7 bide jaso dira, guztira 2,1 kml luze izanik. Denak asfaltatuta eta egoera onean daude.

5. CONCLUSIONES GENERALES DEL INVENTARIO

En el inventario se han incluido dos tipos de camino, por un lado aquellos cuya titularidad pública es indiscutible y pertenecen al Ayuntamiento desde tiempo inmemorial, que se han recogido en el grupo denominado Caminos Públicos, y por otro, aquellos que si bien se utilizan por la generalidad de los vecinos, son de titularidad privada, y se han recogido en el grupo denominado Caminos Privados con Servidumbre de Uso Público.

CAMINOS PUBLICOS

Dentro de este grupo se han inventariado un total de 30 caminos, que ocupan una longitud de 24 kilómetros lineales. Las características generales, tomando en cuenta el Resumen de los caminos inventariados en función de su firme y estado (Anejo 2), son las siguientes:

- el 37% de la red (9 Km) son caminos pavimentados, con el firme generalmente de asfalto, y a veces de hormigón, en buen estado.
- el 35% (8,3 Km) tiene el firme de todo uno y suelen ser pistas forestales.
- el 18% (4,4 Km) son caminos con el firme de tierra, en buen estado, cuyo trazado es claro y evidente y perfectamente transitables.
- el 10% restante (2,3 Km) está formado por caminos con el firme de tierra, en los que se puede reconocer su trazado, pero en los que existe vegetación que dificulta el paso por los mismos o cuyo trazado se ha perdido por la realización de praderas.

CAMINOS CON SERVIDUMBRE DE USO PUBLICO

En este grupo se han recogido 7 caminos, que ocupan una longitud de 2,1 kml, y están todos asfaltados y en buen estado.

Inbentariaturiko bide-sarea oro har oso ona dela esan daiteke, %90a egoera onean baitaude, eta garbitasun edo desagertu izanaren arazoa %10ek bakarrik daukatelako

En general, se puede decir que la red de caminos inventariados es muy buena, ya que el 90% de la misma se encuentra en buen estado, y sólo un 10% presenta problemas de limpieza o desaparición.

Donostian, 2016ko uztailaren 14an

Conchi Uriarte Seminario

ANEJO 1. ERANSKINA

ALEGAZIO EPEA - LABURPENA

PERIODO DE ALEGACIONES - RESUMEN

Alegazio epean hauek izan dira inbentarioa ikustera etorri direnak:

Durante el periodo de alegaciones las personas que han venido a ver el inventario han sido las siguientes:

BASERRIA / CASERIO	IZENA / NOMBRE
DAMASORO IKUILUA	Nekane Lazkano
ETXEBERRITXO	José M ^a Amondarain
ZUMARTETXE	Jon Barriola Irastorza
BIZKAIETXE	Rosario Arsuaga
IBARGAIN	Iker Apeztegia
	Isabel Agirre Lizarribar
OTARRE	Garbiñe - Kontxi Aginagalde Odriozola
	Tomas Odriozola Iturbe
ETXEZARRETA 1	Zigor Oiartzabal Artola
	Koldobike Artola
ETXEZARRETA 2	Pili Bilbao
AGINAGALDE	Mariaje Aginagalde
ELUTZUN	Asun Lazkano Otegi
ARTETXE	Aitor Amondarain
MAITA BEKOA	Javier Yarza
MENDI LORE	Fernando Mendiluze Portu

Inbentarioa kontsultatu dutenek harekiko adostasuna adierazi dute, ez da alegaziorik aurkeztu. Gehienek haien inguruko bideak egiaztatu nahi izan dituzte, bakar-bakarrik bi kontu mahaigaineratu dira:

- Javier Yarza jauna (Maita Bekoa Baserrikoa) kezkaturik azaldu da 28 bidearen luzapena dela eta bere baserritik Maita Goikoa baserriaren inguruko 01 bideraino, izan ere, ez baitaki zer erabilera emango ote zaion bideari. Alegia, orain arte noizbehinka mendizale batzuek baino ez dute erabili, eta beldur da aurrerantzean autoek, motoek, bizikletek, ehiztariek eta abarrek erabiliko ote duten; horrek baserriko bizilagunei ekar liezaiekeen arriskuarekin, bidea baserriaren ondo-ondotik igarotzen baita. Era berean, kezkaturik dago bidea hondatzearekin, orain arte bera arduratu baita bidea zaintzeaz. Hori guztia dela eta, udalari eskatzen dio bideen erabilera arautzeko.

Las personas que han consultado el inventario se han mostrado de acuerdo con el mismo, no habiéndose presentado ninguna alegación. La mayoría ha querido comprobar la situación de los caminos en su zona, siendo únicamente dos las cuestiones planteadas:

- Sr. Javier Yarza (C^o Maita Bekoa). Muestra su preocupación ante la prolongación del Camino 28 desde su caserío hasta el Camino 01, en las intermediaciones del caserío Maita Goikoa. Su preocupación radica, principalmente, en el uso que se le pueda dar al mismo, es decir, que lo que hasta ahora no se ha usado, más que ocasionalmente por algunos montañeros, sea utilizado por coches, motos o bicis, cazadores, etc, con el riesgo que conlleva para los habitantes del caserío ya que el camino pasa pegado al caserío. Asimismo le preocupa el deterioro que pueda sufrir el camino, cuyo mantenimiento ha venido realizando él hasta ahora

- Aitor Amondarain jauna. 34 bidea, oinezkoentzat dena, baserriaren etxaurretik igarotzen da, garajerako sarbidearen aurretik, hain zuzen. Hori dela eta, ibilbidea aldatzea nahi luke, haren ustez, bertatik igaro litezkeen pertsonak harrapatzeko arrisku handia baitago.

Por estos motivos solicita al Ayuntamiento que haga una normativa que regule el uso de los caminos.

- Sr. Aitor Amondarain. El Camino 34, que es de uso peatonal, discurre junto a la fachada de su caserío, justo en la zona de acceso a su garaje. Quiere cambiar el trazado del camino en este punto porque lo considera muy peligroso para el paso de las personas por posibles atropellos.

ANEJO 2. ERANSKINA

BIDEEN LABURPENA ZORUA ETA EGOERAREN ARABERA

RESUMEN DE LOS CAMINOS EN FUNCION DE SU FIRME Y ESTADO

IBARRAKO BIDEEN LABURPENA ZORUA ETA EGOERAREN ARABERA (m)
RESUMEN DE LOS CAMINOS EN FUNCION DE SU FIRME Y ESTADO (m)

HERRI-BIDEAK / CAMINOS PUBLICOS

BIDEA CAMINO	LUZERA LONGITUD (m)	ZORUA / FIRME					
		ZOLATUA/PAVIMENTADO		ZAGORRA TODO UNO	LURRA / TIERRA		
		ASFALTOA ASFALTO	HORMIGOIA HORMIGON		ONA BUENO	HALA-HOLA REGULAR	TXARRA MALO
01	1.234	384	84	766			
05	1.755			1755			
06	613	613					
09	888	888					
16	115		115				
17	1.017	65	616	112	81		143
26	537	537					
27	4.835	1145		3225	465		
28	1.832	1290	120		152		270
29	638	98			540		
30	296			212	84		
31	297		66	44	187		
32	1.924			800	645	479	
33	406	328		78			
34	697		193		117	387	
36	360				360		
37	242		23		137		82
38	192				119	73	
39	1.668	78		990	600		
60	656	170		92	184	210	
61	94				57		37
21	667	387					280
24	180	42	138				
44	227					227	
46	582	351	231				
48	454	154		300			
50	841	168			651		22
57	380	380					
70	218	104				114	
71	220	220					
GUZTIRA	24.065	7402	1586	8374	4379	1490	834
%	100	30,76	6,59	34,80	18,20	6,19	3,47

ERABILPEN PUBLIKOA DUTEN JABARI PRIBATUKO BIDEAK
CAMINOS CON SERVIDUMBRE DE USO PUBLICO

BIDEA CAMINO	LUZERA LONGITUD	ZORUA / FIRME					
		ZOLATUA/PAVIMENTADO		ZAGORRA TODO UNO	LURRA / TIERRA		
		ASFALTOA ASFALTO	HORMIGOIA HORMIGON		ONA BUENO	HALA-HOLA REGULAR	TXARRA MALO
EP-A	355	355					
EP-B	357	357					
EP-C	136	136					
EP-D	213	213					
EP-E	434	434					
EP-F	573	573					
EP-G	53	53					
GUZTIRA	2.121	2.121					
%	100	100					

ANEJO 3. ERANSKINA

EGOERA JURIDIKOA / ASPECTOS JURÍDICOS

ERABILPEN PUBLIKOA DUTEN JABARI PRIBATUKO BIDEAK

Inbentarioan, jabari pribatukoak diren bideak jaso dira, nahiz eta bizilagun guztiek erabili.

Bide hauek egoera onean daude, baina jabari pribatuko lursailetan eraiki dira, eta ez dira inoiz bere titulartasun-alderdiak erregularizatu. Baina kontuan harturik oso erabiliak direla, udalak bide hauetan herri-zortasun (servidumbre pública) bat ezarri edo bere titulartasun-alderdiak erregularizatuko dituen baloratu behar du.

Herri-zortasun bat ezartzen bada, bidea jabego pribatukoa izaten jarraituko du, baina mantenimendua eta arta-lanak udalaren esku egongo dira, eta bizilagun guztiak erabiltzeko aurkera izango dute.

Baina udalak herri-zortasun bat ezarri orde, bidea udal ondasunean sartu nahi badu, titulartasun-alderdiak erregularizatu beharko ditu, jarraian zehazten den prozeduraren baten erabiliz:

Lehenengoa.- Jabeek eraginpeko lursailak Udalari lagako dizkiote formalki.

Bigarrena.- Okupatutako lursailak bide zaharrari lotutako lur-zatien truke permutatzea. Toki Erakundeen ondasunak permutatzeko, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 112.2. artikuluan exijitutako baldintzak bete behar dira. Bertan, ondorengoa ezartzen da:

Hirugarrena.- Desjabetze-espeditente bat has daiteke, Udal Plangintzak bide-sare guztia bide Sistema Orokortzat kalifikatuz, horretarako ekainaren 30eko 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legearen 177.b) artikulua aplikatuko da.

CAMINOS CON SERVIDUMBRE DE USO PUBLICO

En el inventario se han incluido caminos que si bien se utilizan por la generalidad de los vecinos, son de titularidad privada.

Se trata de caminos que están en buenas condiciones, pero que se han construido en terrenos de propiedad privada, y en ningún momento se han regularizado los aspectos de titularidad. Pero teniendo en cuenta que son caminos muy transitados, el Ayuntamiento deberá valorar si sobre los mismos constituye una servidumbre pública o regulariza los aspectos de titularidad.

En el supuesto de constituirse una servidumbre pública, la titularidad de los mismos será privada, si bien su mantenimiento y conservación la deberá llevar a cabo el Ayuntamiento y podrá utilizarse por la generalidad de los vecinos.

Por el contrario, si el Ayuntamiento en lugar de constituir una servidumbre pública, prefiere que forme parte del patrimonio municipal, deberá de regularizar los aspectos de titularidad utilizando algunos de los siguientes procedimientos:

Primero.- Cesión formal –por parte de los propietarios- a favor del Ayuntamiento de los terrenos afectados.

Segundo.- Permuta de los terrenos. Para permutar bienes de las Entidades Locales es necesario cumplir los requisitos exigidos en el artículo 112.2 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Tercero.- Se podría iniciar un expediente expropiatorio, calificándose en el Planeamiento Municipal toda la red de caminos como un Sistema General viario, siendo aplicable el artículo 177.b) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo.

Laugarrena.- Azkenik, beti eta Udalak azken 30 urteetan bidea onez eduki badu, bere jabetza preskripzioaren bidez lor dezake.

Cuarto.- Finalmente si el Ayuntamiento ha poseído el camino de forma pacífica durante 30 años, se podría adquirir su propiedad mediante la prescripción.

ANEJO 4. ERANSKINA

IRISTAZABAL BASERRIAREN PLANOA (1.960)

PLANO DE LOS PERTENECIDOS DEL CASERIO IRISTAZABAL (1960)

ANEJO 5. ERANSKINA

“PROYECTO DE CAMINO VECINAL DE PRIMER ORDEN
DESDE TOLOSA A LEABURU” (1.920) Erref/Ref – JD T 388,2